

Hizkuntza-bilakaera (BILA indizea)

Taulan ikusten denez, erdaldun zaharrak nagusi dira Araban(%56). Euskaldun zaharren ehunekoa oso txikia da, %3,3koa baino ez.

Baina, azken urteotan, elebidunen artean gero eta pisu handiago hartzen ari da euskaldun berriak¹ deituriko multzoa. Euskaldun berriak² elebidunen % 44,1 dira EAEn, baina Araban elebidunen %79,2. 1986an, aldiz, elebidunen %52,9 ziren Araban.

Hizkuntza-bilakaeraren indizea (BILA). EAE, 2006				
Hizkuntza-bilakaera	EAE		Araba	
	Kop.	%	Kop.	%
Euskaldun zaharrak	355.008	17,6	9.422	3,3
Jatorrizko elebidunak	66.991	3,3	5.473	1,9
Euskaldun berriak	333.641	16,5	57.353	19,8
Partzialki euskaldun berriak	311.167	15,4	49.332	17,0
Partzialki erdaldunduak	38.524	1,9	2.187	0,8
Guztiz erdaldunduak	13.109	0,7	890	0,3
Erdaldun zaharrak	897.817	44,5	164.869	56,9
Guztira	2.016.257		289.526	

Iturria: EUSTAT

¹ Euskaldun berriak: eskolan edo euskaltegian euskara ikasi izanagatik elebidun egin dena.

² Arindu behar dugu euskal hiztun berri bilakatzeko asmoz ikasketa prozesuan barrena abiatzen dena euskararen mundu erreferentziala bereganatzeko obligazioaz. Ez baita hizkuntza -ez euskara ez beste inongo hizkuntzarik- mundu afektibo bat daukana: pertsonak gara mundu afektiboa daukagunak. In *Itun Berritu Baterantz* 38.orr.